

**Pertsona izenorde indartuen erabilera erreflexiboa  
Leizagarraren idazlanetan**

B. Oyharçabal

► **To cite this version:**

B. Oyharçabal. Pertsona izenorde indartuen erabilera erreflexiboa Leizagarraren idazlanetan. Euskaltzaindia - Académie de la langue basque, pp.258-278, 1997. <artxibo-00000080>

**HAL Id: artxibo-00000080**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00000080>**

Submitted on 8 Feb 2006

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

*Federiko Krutwig-i omenaldia*, IKER 10, 1997, Euskaltzaindia, Bilbo, 258-278.

Pertsona izenorde indartuen erabilera erreflexiboa  
Leizarragaren idazlanetan  
B. Oyharçabal (IKER-CNRS)

Pertsona izenorde indartuak deitzen ohi dira *neu*, *nerau*, *neror*, *nihaur*, eta hauen irudiko hitzak, eta haiek ditugu ikergai artikulu honetan. Azkuek *Morfologia Vasca*-n (§ 648) eta Altubek *Erderismos* liburuan (1929:96-107) egin zituzten haiei buruzko lehen ikerketa saioak, geroztik, EGLU-k ere berriz hartuak izan dituenak (I, 79-85. o.). Hain zuzen, hemen lehen eta bigarren pertsonako izenorde intentsiboen erabilera batzuen aurkezpena egin nahi nuke,<sup>1</sup> Leizarragaren lanetan agertzen diren formak ikertuz.

Euskalki guzietan izenorde indartuek badute hanpadurari dagokion erabilera bat, anitzetan mintzagai edo galdegai izateari lotua. Erabilera horretan zenbait diferentzia agertzen badira ere euskalkien artean Altubek seinlatu bezala, ez gara hemen hauetaz ariko, ez eta ekialdeko euskalkietan Leizarragaren garaitik gaurdaino iraun duen ba lio eksklusiboa dakarrenaz ere (Oyharçabal, prest.). Aitzitik, beste erabilera bat, zaharkitua dena, ikertuko dugu: erabilera erreflexiboa. Ondoko adibidean agertzen da delako erabilera:

- (1) Ihardets ceçan lesusec eta erran ciecén, Nic **neurorçaz** testificatzenagatic sinhesteco da ene testimoniagea. Joan. 8, 14.

Adibide horretan ikus daiteke nola lehen pertsona (*nic*) alde batetik osagarri gramatikala den (subjektua) eta beste aldetik adizlagun instrumentala (*neurorçaz*). Kontsideratuko dugu perpau bereko osagarri gramatikal bat eta adizlagun bat erreferentziakide direnean erlazio erreflexiboa sortzen dela sintagma horien artean, adizlaguna erreflexibo gisa erabilia izanik<sup>2</sup>. (1) adibidean izenorde indartuak du erabilera erreflexiboa, erreferentzia lehen pertsona singularrekoak ematen duelarik.

---

<sup>1</sup> Gaiaren mugatzeagatik bazterrean utzia dugun hirugarren pertsona *bera(k)* da.

<sup>2</sup> Rebuschiren lanetan (besteak beste 1989 eta 1995) aztertua da bereziki erlazio erreflexiboak euskaraz nola gertatzen diren.

## 1. Pertsona izenorde indartuen forma Leizarragaren lanetan<sup>3</sup>.

Euskalki guzietan bezala hiru formetan agertzen zaizkigu izenordeak Leizarragaren izkirioetan:

- $\emptyset$  edo *pro* forman izenordea isildua izanik:  $\emptyset$  *ikusi dut*;
- forma soilean: *nik ikusi dut*;
- forma indartuan: *neurorrek ikusi dut*.

Bestalde, genitibo edutezkoan *neure* bezalako forma erreflexibo bereziak ere agertzen dira, zenbait izenorderekin behintzat <sup>4</sup>. Ageriko formetan gelditurik, beraz, paradigma bikoitza dugu, eta hirukoitza 1. eta 2. pertsonekin genitiboan, eta honen gainean eraikiriko kasuetan (soziatiboa, destinatiboa):

(2) 1. eta 2. pertsonako izenordeak Leizarragaren obran (absolutiboan eta genitiboan).

- 1. pertsona singularra: *ni, neuror.* *ene, neurorren, neure.*
- 1. pertsona plurala: *gu, geuror / geurok.* *gure, geurorren / geuron, geure.*
- 2. pertsona singularra: *hi, heuror.* *hire, heurorren, heure.*
- 2. pertsona singularra: *zu, zeror.* *zure, zerorren..*
- 2. pertsona plurala: *zuek, zeurok.* *zuen, zeuron.*

Formaren aldetik ikus dezakegu izenorde indartuetan gradu hurbileko erakusle bati dagokion morfema bat (-or) loturik dagoela izenordearen forma indartuari, honetan -*eur* forma agertzen delarik. Beraz *neur*, (*h*)*eur*, *geur*, *zeur* formak ez badira agertzen bakarrik erabilirik Leizarragaren lanetan<sup>5</sup>, forma indartuetan kausitzen dira halere, lehen osagai gisa: *neur-*, *geur-*, *eur-*, *zeur-*.

*Zeurok* formaren ondoan *zuerok* ere agertzen da behin pluraleko bigarren pertsonan. Nola *zuerok* behin baizik ez baita kausitzen, eta 16 aldiz beste forma (*zeurok*), pentsatzekoa da errakuntza baten ondorioa dela, eta segurenaz ere hala da.

---

<sup>3</sup> Idazlan guziak kontuan hartu ditugu, J. Lavinek prestatu informatikazko kopia baliatuz. Zenbaketak eta testu miaketa, Josu Zabaletak informatikan emanikako laguntzari esker egin ahal izan ditut.

<sup>4</sup> Pluraleko pertsonetan eta erregistro jasoko 2. pertsona singularrekoan Leizarragak ez zituen erabiltzen genitibo edutezkoan ager daitezkeen izenorde erreflexiboak: ez dugu aurkitzen, beraz, *zeure*, *geure*, *zeuen* bezalako izenorderik.

<sup>5</sup> Axularrek zenbait pertsonarekin behintzat bi formak erabiltzen zituen : *neur* eta *neror*, *zeur* eta *zeror*. Ez dugu horrelakorik Leizarragaren idatzietan.

Elkarketako bigarren osagaia *-(h)or(i)* bigarren erakusleari dagokio: beti singularreko izenordeekin, eta batzuetan bakarrik 1. pertsona pluralekoarekin (*geuror*). Haatik, orduan, *-ok* morfema plurala ere agertzen da izenorde indartuaren bigarren elementu gisa:

- *neur-or, eur-or, zeuror* (sing.), *geur-or*,.
- *geur-ok, zeur-ok* (plur.).

Leizarragak ez zituen gradu hurbileko bi erakusleak pertsonen jokoari egokitzen, lehen erakuslea lehen pertsonako izenordeekin erabiliz, eta bigarren erakuslea bigarren pertsonako izenordeekin. Adibidez ergatiboan *neurorrek* eta *neurorren* dio eta ez *ne(u)ronek* eta *ne(u)ronen*.

Neutralizazio hori, dakigun bezala, franko zabaldua da. Anitzetan, ordean, lehen erakuslearen fagoretan egiten da, hala nola Leizarragaren mendean berean Etxepareren obran: *nihaur, guhaur, hihaur, zuhaur*<sup>6</sup>. Azken kasu honetan lehen graduko erakuslea (*haur*) bigarren pertsonako izenordearekin agertzen da: *hihaur, zuhaur*.

Izenorde indartuak deklinatzerakoan kasu marka adberbialak erregularrak dira, formak batzuetan aldakorak badira ere: instrumentalean *-zaz* eta *-z* morfemak agertzen dira, eta leku denborazko kasuetan, *-ta-* morfemarekilako formen ondoan, *gan-* eta *baita-* posposizioak ere aurkitzen ditugu, batzuetan izenordea absolutiboan izanik, besteetan genitiboan. Azken kasu hauetan, izenordeak berak ez du kasu marka adberbialik, baina halere, kontsideratuko dugu ondotik heldu den posposizioa dela bide izenorde adberbiala dela.

Deklinatzerakoan lehen osagaiko bukaerako *-r* soila horrela gelditzen da beti, nahiz behin *eurrorec* forma ere agertzen den *-rr-* anizkunarekin<sup>7</sup>. Nola beste sei alditan *eurorrec* baitugu, badirudi errakuntza baten ondorioa dela forma hau ere.

Ondoko taulak erakusten du nola agertzen diren lehen eta bigarren pertsonako izenorde indartuak Leizarragaren idatzietan:

---

<sup>6</sup> Etxeparek, halere, bi erakusleak metatzen zituen batzuetan forma indartuetan, 2. pertsonarekin behintzat: *ihaurorrek* (I, 282) eta *zuhaurorrec* (XII, 46) erabili baitzituen, *ihaurk* eta *zuhaurk* formen ondoan.

1. eta 2. pertsonako izenorde indartuak, Leizarragaren obran adizlagun gisa erabiliak<sup>8</sup>  
(formaren ondoan, parentesien artean, forma zenbat aldiz agertzen den)

INST.	neurorzaz (2)	eurorrez (1) eurorçaz (1)		
DEST.	neurorrendako (1)	eurorren (1)	geuron (1)	zeurondako (2)
INES.	neuror baithan (1)	euror baithan (2)	geurok baithan (8)	zeurok baithan (8)
ABL.	neurorganik (1)		geurorganik (1)	
ADL.				zeurotara (1)

2. Pertsona izenorde indartuen erabilera erreflexiboa.

2.1. Gorago erran dugun bezala, lehen eta bigarren pertsonako izenorde indartuen erabilera erreflexiboa agertzen da, noiz eta ere, izenordea adizlagun gisa<sup>9</sup> erabiliak izanik (*neurzaz*, *neurrorendako*, *eurorrez*, *eurorzaz*, *zeurondako*, *zeurotara*, edo, absolutiboan izanik, izenordea *gan* eta *baitha* posposizio lokatiboekin agerturik), perpauseko osagarri gramatikal bat ere<sup>10</sup> ber pertsonan baita. Horrek, haatik, ez du erran nahi ez dela beste

<sup>7</sup> Adibidea: *Edo nola ahal derraqueoc eure anayeri, Anayé, vtzi neçac idoqui deçadan hire beguian den fitsa, eurrorrec hire beguian den gapirioa ikusten eztuanean?* Luk. 6, 42.

<sup>8</sup> Izenorde indartuak adizlagunak ez direnean ez dira erreflexiboak, salbu adibide batean datiboaren kasuan; ik. 9. oh.. Hona forma hauen agerpenei dagokien taula (absolutiboari dagozkion kasuetan ez ditugu kontuan hartzen hemen *gan* eta *baitha* posposizioekin diren okurrentziak, testuko taulan agertzen direnak):

ABS	neuror (13)	euror (8)	zeuror (1)	geuror (3) geurok (4)	zeurok (11)
ERG.	neurorrek (6)	eurorrek (7)		geurok (6)	zeurok (13)
DAT.		eurorri (1)			

<sup>9</sup> Erabilera erreflexiboa behin baizik ez dugu aurkitu kasu gramatikala dakarten izenorde indartuetan. Alabaina Leizarragaren lanetan *eurorri* forma agertzen den aldi bakarrean erreflexiboa da. Halere arras kontestu berean *eure buruari* erabiltzen du urrunago Leizarragak:

*Eztraucac eure buruari imagina ebaquiric eguinen.* (ABC, Ora.)

*Eztraucac eurorri eguinen imagina ebaquiric.* (Katex)

Kontan har bedi *eurorri* forma erabilirik ere, datiboak hirugarren pertsonako komuntadura duela aditzean, *eure buruari* sintagmak bezala (*draukak* dio bietan Leizarragak, *eurorri* formarekin *duk* edo are gutiago noski *\*draukak* erabili gabe). Adibide bakarra izanik horrelakoa (1. eta 2. pertsonako forma indartuei dagokien okurrentzia bakarra) ez dakit zer tratamendu eman behar zaion. Beste kasu gramatikaletan, aditzarekilako pertsona komuntadura erregularra izaten da beti.

<sup>10</sup> Egia erran, gure adibideetan izenordeari dagokion erreferentziakidea subjektua da beti. Objektu zuzenekin edo zeharkakoekin horrelako konfiguraziorik ez dut aurkitu. Formulazio zabala hobetsi dugu (osagarri

erarik erreflexibotasunaren markatzeko, ezen hor dugu *X-en burua(k)* moldeko erreflexiboa adizlagunentzat ere erabil daitekeena. Molde horretako adizlagunak, ordean, ez ditugu lan honetan ikertuko<sup>11</sup>.

Ikusiko dugun bezala, izenorde indartuak adizlagun direnean Leizarragaren lanetan (31 bat okurrentzia), erreflexiboak dira beti, salbuespen bihirik ere gabe.

Ondoko adibideak erakusten digu forma indartuen eta soilen arteko kontrastea, biak perpaus berean erabiliak baitira:

- (3) Eguiazqui Baptismoaz vsatzeco formá, fedean da eta penitentián: erran nahi dut, segur içan behar garela, ecen gure puritate spirituala Christen odolean dugula, **gueuroc baithan senditzen dugularic**, eta obraz gure hurcoey declaratzen drauegularic, ecen *Christen Spiritua gutan habitatzen dela*, gure guthicién mortificatzeco eta laincoaren vorondateari iarreiqui eraciteco. (Katex.)

*Geurok baithan* agertzen den perpauseko subjektua 1. pertsona pluralekoa da (*dugularik* adizkera jokatuak seinalatzen duen bezala). Erreflexiboaren erabiltzeko baldintza betetzen da, beraz. Aldiz, *gutan* agertzen den perpausean, 1. pertsona pluralekoa ez da subjektua, eta ez du beste funtzio gramatikalik betetzen. Ondorioz, forma erreflexiboak ez du hartan tokirik.

Adibideak gehiegi ez izanik denak zerrendaturik ekartzen ditugu eranskinean. Hemen, aldiz, bakoitzari dagokion adibide bat eskainiko dugu, geroko utzirik, haatik, genitiboaren marka dakarten adizlagunak, hauek bigarren izenorde erreflexiboari ere bide ematen baitiote.

#### 2.1.1. Instrumentala<sup>12</sup>:

- (4) Ihardets ceçan Iesusec eta erran cieçén, Nic **neurorçaz** testificatzenagatic sinhesteco da ene testimoniagea. (Joan. 8, 14.)
- (5) Eta hura appartaturic has cequión Pierris reprotchatzen, cioela, **Euroçaz** auc pietate, launa: etzaic hiri hori helduren. (Mat. 16, 22.)

---

gramatikal guziak kontuan hartzen dituen, eta ez subjektua bakarrik), zeren euskarari kausitzen ohi dena baita.

<sup>11</sup> Dena den 1. eta 2. pertsonetako forma erreflexiboetara mugatuz gero, ez dira hainbeste horrelako formak. Gure bilketaren arabera *gure buruez*, 2 adibide (Katex. Euskaltzaindiaren argitalpeneko 1271. eta 1334. o.), *çuen buruëtara* eta *gure buruetaratco* (adibide bedera, Joan, 2. ep. 8; Katex. 1310. o.).

<sup>12</sup> *Buru* izen erreflexiboa ere agertzen da kontestu horretan, baina ez singularreko pertsona izenordeekin. *Gure buruez* (2 okurrentzia) bi aldiz agertzen da; *geurozaz* edo *geurozaz*, berriz, batere ez.

## 2. 1.2. Adlatiboa

- (6) Guero erran ciecén, Israeltar guiçonác, gogoauçue **ceurotara**, guiçon hauçaz cer eguinen duçuen. (Ap. A. 5, 35.)

## 2. 1.3. Ablatiboa

- (7) Nic çuey erraiten drauzquiçuedan hitzac, **neurorganic** eztitut erraiten: baina nitan dagoen Aitac eguiten ditu obrác. (Joan. 14, 10.)
- (8) Ez sufficient garelacotz gure buruz cerbaiten pensatzeco, **gueurorganic** beçala: baina gure sufficientiá laincoaganic da. (2 Korin. 3, 5.)

## 2.1.4. Inesiboa

- (9) Baina haur **neuror baithan** deliberatu vkan dut, çuetara tristitiarequin berriz ez ethortera. (2 Korin. 2, 1.)
- (10) Eta orain glorifica neçac hic Aitá, **euror baithan**, gloria harçaz cein vkan baitut hirequin mundu haur eguin cedin baino lehen. (Joan. 17, 5.)
- (11) Guciagatic-ere launa, **gueuroc baithan**desplacer diagu ceren offensatu augun. (Katex. Konfes.)
- (12) Eta ezteçaçuela presumi **ceuroc baithan**erraitera, Abraham dugu aita. (Mat. 3, 9.)

2.2. Galdegin daiteke ea izenorde indartuek erabilera erreflexiboa duten kasu horietan (erran nahi baitu kasu marka adverbiala zuzenean hartzen dutelarik, edo *gan-* edo *baitha-* posposizioekin erabiliak izanik absolutiboan direlarik), izenorde soilak ere ager daitezkeen. Erantzunak ez dio dudari lekurik uzten pertsona gehienekin: ez. Alabaina, orduanerreflexibo gisa erabilirik aurkitu dugun izenorde soil bakarra *zuek* da, *baithan* posposizioarekin batean agerturik orduan. Hona gisa horretako hiru okurrentziei dagozkien adibideak.

- (13) Baina eçagutzen çaituztet ecen laincoaren amorioa eztuçuela **çuec baithan**. (Joan. 5, 42.)
- (14) Orduan erran ciecén lesusec, Eguiaz eguiaz erraiten drauçuet, baldin ian ezpadeçaçue guiçonaren Semearen haraguia, eta edan ezpadeçaçue haren odola, eztuçue vicitzeric **çuec baithan**. (Joan. 6, 53.)
- (15) Cer? sinhets ecin daitenetan daduçaçue **çuec baithan**, laincoac hilac ressuscitazen dituela? (Ap. A. 26, 8.)

Ikus dezakegunaz, *zeurok* izenordea *baithan* posposizioarekin beti erreflexibo gisa erabiltzen bazuen Leizarragak, *zuek baithan* ere baliatzen zuen modu berean. Hau, aitzitik, *zeurok baithan* ez bezala, beste kontestuetan ere (erreflexiboa izan gabe, hots) ager zitekeen (27 okurrentzia).

Ikus dezagun orain, Leizarragaren lanetan era soilaren eta indartuaren ondoan agertzen den hirugarren adizlagun mota bat, genitiboaren gainean eratua hau.

### 2.3. Genitiboa forma adverbial erreflexiboetan.

2.3.1. Lehenik ikus ditzagun genitiboaren marka dakarten izenorde indartuak, Leizarragaren obran:

(16) *-en* atzizkia izenorde indartuetan (parentesien artean okurrentzien kopurua):

GEN.	neurorren (1)	eurorren (2)	geuron (1)	zeuron (13)
DEST. (2)	neurorrendako (1)			zeurondako
		eurorren (1)	geuron (1)	

Izenorde adberbialetan destinatiboa baizik ez dugu kausitzen genitiboarekin eratua.

Kasu guzietan (5 okurrentzia orotara) erabilera erreflexiboa da. Hona adibideak:

- (17) Baina cer diotsa hari reposta diuinoac? Reseruatu citiát **neurorrendaco** çazpi milla guiçon belhaunic Baalen imaginari plegatu eztraucatenic. (Errom. 11, 4.)
- (18) Eta diotsa Pierrisec, Eneás, sendatzen au Iesus Christec: iaiqui adi, eta eure ohea accotra eçac **eurorren**. Eta bertan iaiqui cedin. (Ap. A.9, 34.)
- (19) nola hura eguiazco lainco eta eguiazco guiçon delaric, baita eguiazqui ogui saindu celestiala, gure viuificatzeco, guehiagoric **gueurón** vici ezgarençat, ez gure naturaren araura, cein baita gucia corruptitua eta viciosoa: baina Christ bera vici den gutan, vicitze saindura, dohatsura eta seculacotz irauten duenera eraman gaitzançat. (Katex. Konfes.).
- (20) Baina ihardets ceçaten çuhurrec, cioitela, Ez, beldurrez asco eztugun gure eta çuen: baina aitzitic çoazte saltzen dutenetara, eta erossaçue **ceurondaco**. (Mat. 25, 9.)
- (21) Sal itzaçue çuen onac, eta eman itzaçue elemosynatan. Eguin itzaçue **ceurondaco** çahartzen eztiraden mulsác, ceruêtan thesaur nehoiz-ere falta eztaitembat: nora ohoinic ezpaita hurbiltzen. (Luk. 12, 33.)

Halere, ez dira bakarrik forma indartuak agertzen horrelako sintagma erreflexiboetan Leizarragaren lanetan. Genitibo erreflexiboa dakarten beste formen ikusteko, ordean, komeni da bereiz ditzagun singularreko pertsonak eta pluralekoak.

### 2.3.2. Genitibo erreflexiboa singularreko pertsonetan.

Dakigunaz, 16. mendean, 1. eta 2. pertsonetan ere bazen Lafittek (1944, §209) genitibo erreflexiboa deitu zuen forma bat, forma indartuetarik bereiz ze na : *neure, eure,*

*zeure, geure, zeuen*. Leizarragak, lehen erran dugun bezala (ik. 2. oh.), lehenbiziko biak baizik ez zituen erabiltzen: *neure* ta *eure*. Forma hauek morfologikoki ongi bereizten dira genitibo erreflexibo horiek genitiboa dakarten (16)ko izenorde indartuetarik.

Gorago erran bezala, singularreko pertonekin, genitibo erreflexiboa agertzen da<sup>13</sup> adizlagunetan, edo kasu marka batekin edo *gan* posposizioa duten lekuzko zenbait formatan:

1. pertsona: *neurequin* (2), *neuregana* (2).
2. pertsona: *eurequin* (3), *eureganik* (4), *euregana* (1).

Kondatu ditudan horrelako hamabi okurrentzietan, izenordeek erabilera erreflexiboa dute. Hone forma bakoitzari dagozkion adibide bat (adibideen zerrenda osoa eranskinean eskaintzen da):

- (22) Garaita vkanen duena iar eraciren diat **neurequin**, *neure* thronoan: nola nic-ere garaitu vkan baitut eta iarria bainago Aitarequin haren thronoan. (Apok. 3, 22.)
- (23) Baina baldin behatzen ezpaçaic, har itzac **eurequin** oraino bat edo biga: biga edo hirur testimonioren ahoan hitz gucia fermu dençat. (Mat. 18, 16.)
- (24) Eta nic, baldin goititua banaiz lurretic, guciac tiraturen ditut **neuregana**. (Joan. 12, 32.)
- (25) supplicatzen augu affectionatuqui (...), *eure* ontassun eta misericordia handiagatic nahi drauzquiguan gure bekatuac barkatu, eta hala gure pensamenduac eta desirac **euregana** tiratu eta altchatu, .... (Katex.)
- (26) Bada baldin *eure* begui escuinac trebuca eraciten bahau, idoqui eçac hura, eta iraitzac **eureganic**. (Mat. 5, 29.)

Bitxikeria da, baina izenorde indartuak eta izenorde erreflexiboak lehian dauden egoera horretan, ez dugu sinonimia osorik erakusten duenik:

- soziatiboan genitibo erreflexiboa: *neurekin*, ez *neurorrek*in;
- destinatiboan izenorde indartua: *neurorren(dako)*, ez *neure(tako)*;
- *baithan* posposizioarekin izenorde indartua (absolutiboan): *neuror baithan*, ez *neure baithan*;

---

<sup>13</sup> *Neure* eta *eure* ez dira agertzen *baitha* posposizioarekin. Destinatiboan *neuretako* eta *euretako* formak ere ez ditugu kausitu.

- *gan* posposizioa izenorde indartu batekin agertzen den kontestu bakarrean (absolutiboan: *neurorganik*), morfema erreflexiboa ez da aurkitzen; alderantziz, genitibo erreflexiboa *gan* posposioarekin erabilia den kontestuetan (*eureganik*, *neuregana*, *euregana*)<sup>14</sup> forma indartua ez da kausitzen.

Gauzak horrela izanik, baina okurrentzia guti izanik ororen buru, ez dezakegu nire ustez ondoriorik atera itxurazko banaketa konplementario horretarik. Adibidez, *neurorganik* aurkitzen badugu (eta ez *neureganik*), eta *eureganik* (eta ez *eurorganik*), neke da horretarik konklusio gisa baieztatzea, Leizarragak *neurorganik* zuela ablatiboko forma erreflexibo bakarra 1. pertsonako izenorde indartuarekin, eta *eureganik* bigarren pertsonakoarekin, bi kasuetan izenorde bata bestea kanporaturik.

Ez da dudarik, ordean, singularreko pertsona horiekin<sup>15</sup> izenorde soilek ez zutela tokirik erabilera erreflexiboan. Orain ikusiko dugun bezala, bestela agertzen dira gauzak pluraleko pertsonekin.

### 2.3.2. Pluraleko pertsonak.

Pluraleko pertsonetan izenorde soilak agertzen dira genitiboa dakarten adizlagunetan erabilera erreflexiboan ere. Horrela kasu destinatiboan *zeurondako* formaren ondoan *zuendako* forma soila ere kausitzen dugu:

- (27) Eta nic erraiten drauçuet, Eguin itzaçue **çwendaco** adisquideac abrastassun iniquoéz falta çaitetzenean recebi çaitzatençat tabernacle eternaletara. Luk. 16, 9.

Bestalde, lehen pertsona pluralarekin, *baithan* posposizioarekin genitiboa erabilia denean *gure* forma soila kausitzen dugu. Hiru aldiz baizik ez dugu kausitu *gure baithan* eta hiruetan erabilera erreflexiboa du.

- (28) Eta ez hec solament, baina gu-ere Spirituaren primitiác ditugula, gueuroc **gure baithan** suspirioz gaude, adoptionearen beguira gaudela, gure gorputzaren deliurançaren diot. (Errom. 8,22.)
- (29) Baina gueuroc **gure baithan** heriotaco sententia vkan dugu: **gure baithan** fida ezquentecençat, baina hilac resuscitatzen dituen laincoa baithan. (2 Corin. 1, 9.)

### 2.4. Izenorde indartu adberbialen banaketa, Leizarragaren obran.

<sup>14</sup> *Euretara* forma (Mark, 5, 19) ez da izenorde adizlaguna, eta ez dugu beraz kontuan hartzen.

<sup>15</sup> *Zu* izenordea ez litzateke multzo horretan sartu behar. Leizarragak oso guti erabili zuen. Baina pasarte horietan ikus daiteke genitibo erreflexiboa *zure* zela eta *zeure*. Beraz, pluraleko izenordeen sailean sartzekoa da *zu*. Forma indartua ere (*zeuror*) ez da aurkitzen.

Rebuschik (1995) jadanik azpimarratu du nola Leizarragak sintagma oblikoetan izenorde indartuak zerabiltzan, testamentu berriaren beste itzultzaileak izen erreflexiboaz baliatzen direlarik.

Hemengo ikerketak erakusten du franko sistematikoa dela jokabide hori. Izenorde indartuak erabilera erreflexiboaz kanpo agertzen badira ere, adizlagunak osatzen dituzten kasu guzietan erreflexiboak dira. Kontrastean, izenorde indartugabearekin moldatu genitiborik gabeko adizlagunetan (hamarka kondatzen direnak) behin ere ez da horrelakorik gertatzen 2. pertsona pluralekoarekin ez bada (ik. (13-15) adibideak). Iduri luke beraz, salbuespen horretarik kanpo halako banaketa konplementarioa agertzen dela forma adberbialetan singularreko izenorde soilak eta indartuak:

(30)

- izenorde indartu adberbialak ---> [+ erreflexiboa]
- izenorde soil singular adberbialak<sup>16</sup> ---> [- erreflexiboa]
- izenorde soil plural adberbialak ----> [± erreflexiboa]

## 2.5. Izenorde genitiboak beste posposizio sintagma batzuetan

Sintagma adizlagunak bi molde nagusitan markatzen dira euskaraz (adberbioez kanpo): kasu marka baten bidez edo posposizio baten bidez (*gatik, gan, baita, kontra, buru, arte, gain, ...*), batzuetan bien arteko aldea non dagoen zuzen oso argi ez bada ere<sup>17</sup>. Erran gabe doa, gramatika kategoria bera dugula bietan, posposizioen kategoria hain zuzen, sintagma adizlagunak osatzen dituen hain zuzen (horregatik posposizio sintagma erraten ohi zaie hauei).

---

<sup>16</sup> Ondoko adibidea ez da kontrabidea, hartan adizkera jokatua alokutiboa baita (aditza era inpersonalean izanik):

*sposoaren eta sposaren voza eztuc **hitan** guehiagoric ençunen, ceren hire merkatariac lurreco prince baitziraden, ceren hire poçoinquiéř seducitu içan baitirade natione guciac..* Ap. A. 18, 23.

<sup>17</sup> Duda agertzen da bereziki soziatiboarentzat eta destinatiboarentzat. Maiz kasu markatzat hartzen badira ere, biek posposizio bat badute barneraturik, zenbatetaraino atzizki bihurtu den ez baita argi. Irizpide gisa juntaketa balia daiteke, posposizioen izenlagunak koordina daitezkeela suposatuz: % *zure eta nirekin joan nahi luke*, % *nire eta zuretzat ekarri dute* bezalako perpausez oso iritzi desberdinak biltzen ohi dira (horregatik % sinboloa baliatu dugu). Irizpide horren arabera *-kin* eta *-tzat* (destinatiboa) horrela juntatzea onartzen dutenentzat posposizioak lirateke atzizkiak. Zenbait hiztunentzat, ordean, kontraste argia da atzizki horien eta beste posposizio batzuen artean: *Zure* eta *enegatik*, *zure* eta *nire baitan*, *zure* eta *enegana*, *zu* eta *niganik*; anitzez onar errazagoak iduritzen baitzaizkie.

Orain artino posposizioetan *gan* eta *baiθα* baizik ez ditugu kontuan hartu, zeren haietan bakarrik kausitu baititugu izenorde indartuak absolutiboan.

Ordean behatzen badugu genitiboa manatzen duten beste posposizioekin zer gertatzen den, ikus dezakegu izenorde indartuen forma genitiboak erabiltzen zituela batzuetan Leizarragak pluraleko pertsonekin bereziki (genitibo erreflexiborik ez zuen kasuetan, beraz). Hona adibide batzuk <sup>18</sup>:

Genitibo erreflexiboa *kontra* posposizioarekin:

- (31) Hortic concluditzen duc hic, ccen gure merituz ecin goga deçaquegula laincoa guri vngui eguitera: baina **gueurón contra** tharritatzen baicen eztugula. (Katex.)

Genitibo erreflexiboa *buru-* posposizionalarekin (*burutik*, *buruz*):

- (32) Ihardets cieçon Iesusec, **Euroren burutic** hic hori erraiten duc, ala bercéc erran draue niçaz? (Joan. 18, 34.)
- (33) Eta nola **ceuron buruz** ere eztuçue iugeatzen bide dena? (Luk. 12, 57.)
- (34) Ia hostatzen diradela dacussaçuenean, **ceuron buruz** eçagutzen duçue ecen ia hurbil dela vdá. (Luk. 21, 30.)

Genitibo erreflexiboa *arte-* posposizionalarekin.

- (35) Eta Iesusec eçaguturic erran cieçén, Cer diharducaçue **ceurón artean** fede chipitacoác, ceren oguiric hartu eztuçuen? (Mat. 16, 8.)
- (36) Ia segur guciz falta da çuetan, ceren auci baituçue **ceurón artean**: ceren eztuçue lehen iniuria suffritzen? ceren eztuçue lehen calte recebitzen? (1 Korin. 6, 7.)
- (37) Baina campocoac launac iudicatzen ditu. Ken eçaçue bada gaichto hori **ceurón artetic**. (1 Korin. 5, 13.)

Singularreko pertsonetan adibide bakarra dugu mota horretako posposizio batekin erabilia (32). Seinala dezagun, bestalde, posposizio sintagma horietarik kanpoan arras gutitan agertzen dela izenorde indartuen forma genitiboa (beti *zeuron* izenordearekin): batzuetan *buru* izen erreflexiboarekin (39-41), eta behin bakarrik izen arrunt batekin (38).

---

<sup>18</sup> Ez ditugu sartzen hemen izenorde indartua duten eta posposizio batekin erabiliak diren X[+HND]-en *buru(ar)*en moldeko formak. Bi adibide aurkitu ditugu horrelakoak, bata *kontra* posposizioarekin, bestea *gainean* posposizioarekin; izenorde indartua kasu bietan *zeuron* da: *Halatan testificatzen duçue ceurón buruén contra*, *ecen Prophetác hil dituztenén seme çaretela*. (Mat. 23, 31.)

Baina itzuliric *hetarát Iesusec erran ceçan*, *Ierusalemeco alabác*, *eçtaguiçuela nigarric ene gainean*: *baina ceuron buruén gainean* eguiçue nigar, *eta çuen haourrén gainean*. (Luk. 23, 28.)

- (38) Etzarete herssiqui habitatzen gutan: baina enserratuac çarete **ceuron halsarretan** (2 Korin. 6, 12.)
- (39) Ala eztaquiçue ecen çuen gorputza temple dela çuetan den Spiritu sainduaren, cein baituçue laincoaganic, eta etzaretela **ceuron buruën?** (1 Korin 6, 19.)
- (40) Baina beguira eieçue çuec **ceuron buruëy**: ecen liuraturen çaituzte consistorioetara eta synagoguetara: açotaturen çarete, eta gobernadorén eta reguén aitzinera eramanen çarete ene causaz, hæy testimoniagetan. (Mark. 13, 9.)
- (41) Eta çareten hitzaren eguile eta ez solament ençule, **ceuron buruäc** enganatzen dituçuela. (Jak. 1, 22.)

Erran gabe doa orduan *gure* eta *zuen* izenorde soilak ere aurkitzen ditugula erreflexibo gisa erabiliak. Hona zenbait adibide:

- (42) Har eçaçue haur, eta parti eçaçue **çuen artean** (Luk, 22, 17.)
- (43) Baina nic erraiten drauçuet, Onhets itzaçue **çuen etsayac**. (Mat., 5, 44.)
- (44) Çuec çarete **çuen buruäc** iustificatzen dituçuenac guiçonén aitzinean (Luk 16, 15.)
- (45) Eta behar ditugu fermu garenóc, infirmoén flaccatassunac supportatu, eta ez **gure buruey** complacitu. (Errom, 15, 1.)
- (46) Eta cembeit egunen buruän erran cieçón Paulec Barnabasi, Itzuliric visita ditzagun **gure anayeac** launaren hitza denuntiatu dugun hiri gucietan, eya nola dauden. (Apost., 15, 36.)

### 3. Ondorioak.

Ikus dezakegu, Leizarragak sistema bikoitz bat erakusten duela 1 eta 2. pertsonari dagozkion adizlagunak erreflexiboak direnean:

- alde batetik, *ni*, *hi*, eta *zu* izenorde singularrekoekin erreflexibotasunak guziz markadura garbia du, eta forma indartua edo genitibo erreflexiboa baliatzen dira horretarako. Banaketa konplementarioan dira, beraz, forma xoilak eta forma indartuak edo genitibo erreflexiboak;

- beste aldetik, *gu* eta *zuek* izenorde pluralekoekin, forma indartu genitibodunek erreflexibotasuna seinalatzen ahal badute, forma indartu gabeak ere izan daitezke erreflexiboak. Ondoko taulak, Leizarragak zerabiltzan forma indartu gabe adberbialak erakusten ditu, erabilera erreflexiboa ere dutenak azpimarratzen direlarik.

## II. Taula: Izenorde adizlagun indartugabeak Leizarragaren obran.

(izarño batez seinatzen ditugu Leizarragaren testuetan beretan korrespondantzia erreflexiboa dutenak (dela izenorde indartuarekin —cf. I. taula—, dela genitibo erreflexiboarekin —cf. (16) zerrenda; azpimarrak forma hori erabilera erreflexiboan ere kausitzen dela seinatzen du)

INSTR.	*nizaz	*hizaz	guzaz	zuezaz
SOZ	*enekin, enekila	*hirekin, hirekilako	gurekin	zuekin
DEST. <sup>19</sup>	*enetzat -----	----- hiretako	guretzat guretako	----- * <u>zuendako</u>
INES. <sup>20</sup>	nitan *----- -----	hitan *hi baithan -----	gutan *gu baithan <u>gure baithan</u>	zuetan * <u>zuek baithan</u> zuen baithan
ABL.	nitarik *eneganik	hitarik *hireganik	gutarik *-----	zuetarik -----
ADL.	----- -----	----- hi baithara	gutara gu baithara	*zuetara -----
	*enegana(no/ko)	*hiregana	-----	-----

<sup>19</sup> Ez dugu kontuan hartu hemen genitiboak izan dezakeen balio destinatiboa, eta beraz ez dugu markatzen *eurorren* bezalako formarekin izan daitekeen kontrastea (cf. 11-12).

<sup>20</sup> Izarñoaren gibelean formarik ez bada agertzen erran nahi du, morfema hori ez dela agertzen. Adibidez *ni baithan* ez dugu aurkitu inesiboan, ez *gureganik* ablatiboan, nahiz *neuror baithan* eta *geurorganik* forma indartuak aurkitu ditugun erreflexibo gisa erabiliak (ik. I. taula).

## Bibliografia

- Lafitte, P. (1962). *Grammaire basque: dialecte navarro-labourdin littéraire*. Les Amis du Musée basque, Baiona.
- Altube, S. (1929). Erderismos. Euskera 11-315. Fac-simileko argitalpena, 1975. Orain sorta.
- Azkue, R. M. (1923). Morfologia vasca. Euskera 1923-1924-1925-1. Argitalpen berria. 1969. 3 lib. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo.
- EGLU, I. (1985). *Euskal gramatika. lehen urratsak-I*. Euskaltzaindiko Gramatika batzordea. Euskaltzaindia, Bilbo.
- Leizarraga, J. (1571). *1. Iesus christ gure iaunaren testamentu berria; 2. Othoitzza ecclesiasticoen forma; 3. Catechisme; 4. Kalendrer*. In Th. Linschmann eta H. Schuchardt, 1900: *I. Leizarragas Baskische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und Abc*, Euskaltzaindiaren argitalpena, Bilbo, 1990.
- Oyharçabal, B. (prest.). *Pertsona izenorde indartuen balio eksklusiboa mugatzen duten faktore morfosintaktikoak* .. ERS 142 (CNRS).
- Rebuschi, G. (1989). *Note sur les pronoms "intensifs" du basque*; in J. Haritschelhar (édit.) *Hommage au Musée Basque*, Société des Amis du Musée basque, Baiona, 473-494.
- Rebuschi, G. (1995). *Weak and strong Genitive Pronouns in Northern Basque: A diachronic perspective*; In J.I. Hualde, J. Lakarra & R.L. Trask (édit.): *Toward a history of the Basque Language*, Johns Benjamins, Amsterdam/Philadelphia, 313-356.

## Eranskina

1. eta 2. pertsonako izenordeen forma adberbialak Leizarragaren idazlanetan.

### 1. Izenorde indartuei dagozkien adibideen zerrenda.

Instrumentala<sup>21</sup>:

Ihardets ceçan Iesusec eta erran cieçén, Nic **neurorçaz** testificatzenagatic sinhesteco da ene testimoniagea: ecen badaquit nondic ethorri naicén, eta norat ioaiten naicen: baina çuec eztaquiçue nondic ethorten naicen, ez norat ioaiten naicén. Joan. 8, 14.

Ni naiz **neurorçaz** testificatzen dudana, eta testificatzen du niçaz ni igorri nauen Aitac. Joan. 8, 18.

Eta hura appartaturic has cequión Pierris reprotchatzen, cioela, **Euroorçaz** auc pietate, launa: etzaic hiri hori helduren. Mat. 16, 22.

Erran cieçoten bada, Nor aiz? respostu deyegunçát igorri gaituzteney: cer dioc **eurorrez**? Joan. 1, 22.

Destinatiboa.

Baina cer diotsa hari reposta diuinoac? Reseruatu citiát **neurorrendaco** çazpi milla guiçon belhaunic Baalen imaginari plegatu eztraucatenic. Errom. 11, 4.

Eta diotsa Pierrisec, Eneás, sendatzen au Iesus Christec: iaiqui adi, eta eure ohea accotra eçac **eurorren**. Eta bertan iaiqui cedin. Ap. A.9, 34

nola hura eguiazco lainco eta eguiazco guiçon delaric, baita eguiazqui ogui saindu celestia, gure viuificatzeco, guehiagoric **gueurón** vici ezgarençat, ez gure naturaren araura, cein baita gucia corruptitua eta viciosoa: baina Christ bera vici den gutan, vicitze saindura, dohatsura eta seculacotz irauten duenera eraman gaitzançat. (Katex. Konfes.).

Baina ihardets ceçaten çuhurrec, cioitela, Ez, beldurrez asco eztugun gure eta çuen: baina aitzitic çoazte saltzen dutenetara, eta erossaçue **ceurondaco**. Mat. 25, 9.

Sal itzaçue çuen onac, eta eman itzaçue elemosynatan. Eguin itzaçue **ceurondaco** çahartzen ez tiraden mulsác, ceruétan thesaur nehoiz-ere falta eztaitembat: nora ohoinic ezpaita hurbiltzen. Luk. 12, 33.

Adlatiboa.

Guero erran cieçén, Israeltar guiçonác, gogoauçue **ceurotara**, guiçon hauçaz cer eguinen duçuen. Ap. A. 6, 35.

Ablatiboa.

Nic çuey erraiten drauzquiçuedan hitzac, **neurorganic** eztitut erraiten: baina nitan dagoen Aitac eguiten ditu obrác. Joan. 14, 10.

Ez sufficient garelacotz gure buruz cerbaiten pensatzeco, **gueurorganic** beçala: baina gure sufficientiá laincoaganic da. 2 Korin. 3, 5.

---

<sup>21</sup> *Buru* izen erreflexiboa ere agertzen da kontestu horretan, baina ez singularreko pertsona izenordeekin. *Gure buruez* (2 okurrentzia) bi aldiz agertzen da; *geurozaz* edo *geurozaz*, berriz, batere ez.

Inesiboa.

Baina haur **neuror baithan** deliberatu vkan dut, çuetara tristitiarequin berriz ez ethortera. 2 Korin. 2, 1.

Eta orain glorifica neçac hic Aitá, **euror baithan**, gloria harçaz cein vkan baitut hirequin mundu haur eguin cedin baino lehen. Joan. 17, 5.

Hic fede duc? auc **euror baithan** laincoaren aitzinean. Dohatsu da bere buruá iudicatzen eztuena laudatzen duen gauçän. Errom. 14, 22.

Confidança laincoa baithan vkaiteco eta ez **gueuroc baithan**. 2. Korin. 1. 9.

Guciagatic-ere launa, **gueuroc baithan**desplacer diagu ceren offensatu augun, eta eguiazco dolurequin gure buruac eta gure vitio guciac citiagu condemnatzen, desiratzen dugularic, hire gratiá gure miseriarri valia eta hel daquiön. Katex. Konfes.

lainco Aita bothere gucitacoa eta celestialá, eçagutzen diagu **gueuroc baithan**, ecen hire aitzinera presentatzera, gure beguién goiti cerura altchatzeco-ere ezgarela digne: eta eztugula gure buruez hambat presumitzeco non vste dugun hiçaz gure orationeac ençunac içanen diradela, baldin gutan denera beha badeçac. Katex. Konfes.

Bekatu eguin diagu bada, launa, eta anhitz maneraz offensatu vkan augu: eta harren, confusioneric eta ahalqueric baicen ezteacussagu gure gainean: eguiaz senditzen eta eçagutzen dugularic **gueuroc baithan** ecen erran ez pensa ahal deçaquegun baino hoguendunago garela hire iugemendu aitzinean. Katex. Konfes.

Eta hunetan auisatzen eta iracasten gaitu, humilia gaitecen, eta **gueuroc baithan** displacer dugun. Katex. Baptism.

Ecen ezgara huna ethorten **gueuroc baithan** perfect eta iusto garela protestatzera eta declaratzerá: baina-aitzitic gure vicitzea eta içatea lesus Christ baithan bilhatzen dugunean, gure ethorte berez herioan, eta damnationean garela confessatzen eta eracusten dugu. Katex.

Eguiazqui Baptismoaz vsatzeco formá, fedean da eta penitentián: erran nahi dut, segur içan behar garela, ecen gure puritate spirituala Christen odolean dugula, **gueuroc baithan** senditzen dugularic, eta obraz gure hurcoey declaratzen drauegularic, ecen Christen Spiritua gutan habitatzen dela. Katex.

Baina eztugu horrez asco, baldin hura orain recebi ezpadeçagu, haren herioaren eta passionearen fructua eta verthutea **gueuroc baithan** sendi deçagunçát. Katex.

Eta ezteçaqueula presumi **ceuroc baithan**erraitera, Abraham dugu aita: ecen badiotsuet, laincoac harri hautaric-ere Abrahami haour susçita ahal dieçaqueola. Mat. 3, 9.

Gauça ona da gatza, baina baldin gatza gueçat badadi cerçaz hura gacituren duçue? Auçue **ceuróc baithan** gatz, eta baque auçue elkarren artean. Mark. 9, 50.

Eguin itzaçue bada fructu emendamenduaren digneac: eta etzaitzeltela has erraiten **ceuroc baithan**, Abraham dugu aita: ecen badiotsuet, laincoac harri hautaric-ere Abrahami haour susçita, ahal dieçaqueola. Luk. 3, 8.

Ecen eztut nahi ignora deçaqueuen, anayeác, secretu haur, (**ceuroc baithan** arrogant etzaretençat) ecen gogortassuna parte Israeli ethorri içan çayola, Gentilén complimentua sar leiteno. Errom. 11, 25.

Gogo batez bata berceagana affectionatuac çaretelariç: gauça gorác affectatzen eztituçuelaric, baina beheretara accommodatzen çaretelariç. Etzaretela çuhur **ceuroc baithan**. Errom. 12, 16.

**Ceuoc baithan**iugea eçaçue, Honest da emazteac estali gaberik laincoari othoitz daguion? 1 Korin. 11, 13.

Ecen ene estecaduretaco afflictionean-ere participant eguin ičan çarete, eta çuen onén galtzea bozcariorequin recebitu vkan duçue: cinaquitelariç **ceuroc baithan** onhassun hobebat duçuela ceruêtan, eta permanent denic. Hebraik. 10, 34.

Eztuçue differentia eguin vkan **ceuroc baithan**, eta eguin ičan baitzarete pensamendu gaichtoezco iuge? Jak. 2, 4.

## 2. Genitibo erreflexiboa duten forma adverbialiei dagozkien adibideen zerrenda.

### Soziatiboa:

Cein nic nahi bainuen **neurequin** eduqui, hire orde cerbitza nençançát Euangelioaren estecailluetan. Filem. 1, 13.

Garaita vkanen duena iar eraciren diat **neurequin**, neure thronoan: nola nic-ere garaitu vkan baitut eta iarria bainago Aitarequin haren thronoan. Apok. 3, 22.

Baina baldin behatzen ezpaçaic, har itzac **eurequin** oraino bat edo biga: biga edo hirur testimonioren ahoan hitz gucia fermu dençat. Mat. 18, 16.

Luc bera duc enequin. Marc harturic erekarrac **eurequin**: ecen probetchable diat cerbitzucotz. 2. Timot. 4, 11.

Troasen Carpo baithan vtzi vkan dudan manteliná, ethor adinean ekarrac **eurequin**, eta liburuác, baina principalqui pergamioac. 2. Timot. 4, 13.

### Adlatiboa:

Eta nic, baldin goititua banaiz lurretic, guciac tiraturen ditut **neuregana**. Joan. 12, 32.

Eta ioan naiçatenean, eta leku çuey appaindu drauqueçuedanean, berriz ethorriren naiz, eta harturen çaituztet **neuregana**: non bainaiz ni, çuec-ere çaretençát. [Joan. 14, 3.

supplicatzen augu affectionatuqui, gure lainco eta Aita oná, gure Saluadore eta Ararteco bakoitzaren icenean, eure ontassun eta misericordia handiagatic nahi drauzquiguan gure bekatuac barkatu, eta hala gure pensamenduac eta desirac **euregana** tiratu eta altchatu, non gure bihotz guciac requeri eta inuoca baiheçaquegu eure placer eta vorondate onaren araura. Katex. Konfes. 6.

### Ablatiboa

Bada baldin eure begui escuinac trebuca eraciten bahau, idoqui eçac hura, eta iraitzac **eureganic**: ecen hobe duc hiretaco, gal dadin hire membroetaric bat, eta eztadin hire gorputz gucia egotz gehennara. Mat. 5, 29.

Eta baldin eure escu escuinac trebuca eraciten bahau, trenca eçac hura, eta iraitzac **eureganic**: ecen hobe duc hiretaco, gal dadin hir e membroetaric bat, eta eztadin hire gorputz gucia egotz gehennara. Mat. 5, 30.

Baldineta eure escuac edo eure oinac trebuca eraciten bahau trenca eçac hura eta iraitzac **eureganic**, hobe duc hire, mainguric edo escubakoitzdun vicitzean sar adin, ecen ez bi escuac edo bi oinac dituála suco gehennara iraitz adin. Mat. 18, 8.

Eta baldin eure beguiac trebuca eraciten bahau, idocac hura, eta iraitzac **eureganic**: hobe duc hire, begui batarequin vicitzean sar adin, ecen ez bi beguiac dituala suco gehennara iraitz adin. Mat. 18, 9.

Erran gabe doa orduan *gure* eta *zuen* izenorde soilak ere aurkitzen ditugula erreflexibo gisa erabiliak. Hona zenbait adibide:

- (42) Har eçaçue haur, eta parti eçaçue **çuen artean** Luk, 22, 17
- (43) Baina nic erraiten drauçuet, Onhets itzaçue **çuen etsayac**. Mat., 5, 44.
- (44) Çuec çarete **çuen buruãc** iustificatzen dituçuenac guiçonén aitzinean Luk 16, 15.
- (45) Eta behar ditugu fermu garenóc, infirmoén flaccatassunac supportatu, eta ez **gure buruey** complacitu. ROM, 15, 1.
- (46) Eta cembeit egunen buruän erran cieçón Paulec Barnabasi, Itzuliric visita ditzagun **gure anayec** launaren hitza denuntiatu dugun hiri gucietan, eya nola dauden. Apost., 15, 36.

*buru-* posposizionalarekin:

- (38) Etzarete herssiqui habitatzen gutan: baina enserratuac çarete **ceuron halsarretan** 2 Korin. 6, 12.
- (39) Ala eztaquiçue ecen çuen gorputza temple dela çuetan den Spiritu sainduaren, cein baituçue laincoaganic, eta etzaretela **ceuron buruën?** 1 Korin 6, 19.
- (40) Baina beguira eieçue çuec **ceuron buruëy**: ecen liuraturen çaituzte consistorioetara eta synagoguetara: açotaturen çarete, eta gobernadorén eta reguén aitzinera eramanen çarete ene causaz, hæy testimoniagetan. Mark. 13, 9
- (41) Eta çareten hitzaren eguile eta ez solament ençule, **ceuron buruãc** enganatzen dituçuela. Jak. 1, 22.

**BURUAGANIC** 19 Guc dugu sinhesten ecen moien hunez beraz dugula, gure Aita eracutsiren delaco confidança betherequin, laincoaren inuocatzeco libertate eta priuilegio. Ecen ezguenduque accessic ez sarteric batre lainco Aitagana, Ararteco hunegana buru eguin ezpague neca: eta hunen icenean ençun içatecotz, hunenganic gure vicia eduqui behar dugu, gure eguiazco \$\$buruaganic beçala. [Doctrina pura: 19]

**BURUAGATIC** ETA guc launa, eçagutzen diagu, gure \$\$buruagatic-ere hiregana goiti beguién altchatzeco, ez gure beharrean hiri requestaric eguitera, gure ahoen irequiteco-ere ezgarela digne, guciagatic-ere elkargatic othoitz daguigun, hic eure ontassunagatic manatu gaituanaz gueroz: othoitz eguiten drauagu generalqui, eure populu guciagatic, oraino hire eçagutzea eztuten ignorant gai choac, nahi dituán illuminatu eta eure eguiazco eçagutzerá erekarri: hire eçagutzea dutenac, nahi dituán hartan entretenitu eta auançatu: hartacotzat nahi duán othoi, eure hitz sainduaren eguiazco declaraçaleric eta publicaçaleric igorri, deus -ere hire ohorearen auançamendutaco eta hire populuaren edificationetaco gauçaric baicen bilha ez procura ezteçaqueten beçalacoric: eta hic hartacotzat igorric, hire gloriaren auançamendutan eta hire populuaren edificationetan fidelqui empletzen direnac, nahi dituán bere eguimbidearen eguitera bethi fortificatu, baieta contraria eguiten dutenetic eure populuá deliuratu eta emparatu. [ABC: orationeac: 101]

**BURUAN** 1 Eta berriz sar cedin Capernaumen cembeit egunen \$\$buruan, eta ençun içan da ecen etchean cela. [Mark: II: 2]

**BURUAN** 17 Eta vezti ceçaten hura escarlataz, eta inguru eçar cieçoten \$\$buruan elhorri plegatzeco coroabat. [Mark: XV: 17]

**BURUAN** 6 Eta gu embarca guentecen altchagarri gaberico oguien egunén ondoan Philippestic, eta ethor guentecen hetara Troasera, borz egunen \$\$buruan: non egon baiquentecen çazpi egun. [Apost: XX: 6]

**BURUAN** 1 Orduan ikus neçan berce Aingueru borthitzbat cerutic iausten cela, hodeibatez inguratua ceinen \$\$buruan baitzén orçadarra: eta haren beguithartea cen iguzquia beçala, eta haren oinac suzco habeac beçala. Eta çuen bere escuan liburutcho irequibat: eta eçar ceçan bere oin escuina itsas gainean, eta ezquerra lur gainean. [Apokal: X: 1]

**BURUAZ** 23 Guero erraiten cerauen guciey. Baldin nehor hor ene ondoan ethorri nahi bada, renuntia beça bere \$\$buruaz, eta har beça bere crutzea egun oroz, eta berrait niri. [Luk: IX: 23]

**BURUAZ** 12 Bada segur gutaric batbederac bere \$\$buruaz contu rendaturen drauca Iaincoari. [Rom: XIII: 12]

**BURUAZ** 3 Cein, gloriaren claretate eta haren personaren imagina propria delaric eta sustengatzen dituelaric gauça guciac bere hitz botheretsuaz, gure bekatuén purgationea bere \$\$buruaz eguinic, iarri içan baita haren maiestatearen escuinean leku goretan. [Hebraik: I: 3]

**BURUAZ** Crutzea hartzeco eta norc bere \$\$buruaz renuntiatzeco, Christi iarreiquitecotz, mat. 10. 38: eta 16. 24: marc. 8. 34: luc, 9. 23 [Testam. aurkibidea: 468]

**BURUAZ** Renuntiatzeco norc bere \$\$buruaz, mat. 16. 24: marc. 8. 34: luc. 9. 23: eta 14. 33 [Testam. aurkibidea: 1579]

**BURUENÇÁT** 14 Ecen ikussiric ecen Gentiléc Leguea eztutelaric, naturalqui Legueari dagozcan gauçac eguiten dituztela, hec Leguea eztutelaric, bere \$\$buruençát berac dirade Legue: [Rom: II: 14]

**BURUEZ** IAINCO Aita bothere gucitacoa eta celestialá, eçagutzen diagu gueuroc baithan, ecen hire aitzinera presentatzera, gure beguién goiti cerura altchatzeco-ere ezgarela digne: eta eztugula gure \$\$buruez hambat presumitzceco non vste dugun hiçaz gure orationeac ençunac içanen diradela, baldin gutan denera beha badeçac. [Confessionea: 25]

BURUEZ H. Fideletaric norc nahi den, Iaincoa bere Aita dei ahal deçaque particularqui. Baina Iesus Christec eman draucun othoitz eguiteco forma hunetan, gucién icenean othoitz eguiten iracasten gaitu, daquigunçat ecen eztugula othoitz eguitean gure \$\$buruez artha behar solament, baina gure hurcoetara-ere charitatez vsatu behar dugula, guciéc Aitabat dugunaz gueroz, eta elkarren haourride garenaz gueroz. [Catechisme: 569]

BURUTIC 51 Eta haur bere \$\$burutic etzeçan erran: baina nola baitzén vrthe hartaco Sacrificadore subirano, prophetiza ceçan ecen Iesusec hil behar luela nationeagatic. [Ioan: XI: 51]

BURUTIC 49 Ecen ni neure \$\$burutic eznaiz minçatu: baina ni igorri nauen Aitac berac manamendu eman draut, cer erran deçaquedan eta cer minça naiten. [Ioan: XII: 49]

BURUTIC 34 Ihardets cieçon Iesusec, Euroren \$\$burutic hic hori erraiten duc, ala bercéc erran draue niçaz? [Ioan: XVIII: 34]

BURUTIC 34 Hunegatic exhortatzen çaituztet har deçaquen iatera: ceren haur çuen emparatzeari appertenitzen baitzayó: ecen çuetaric baten-ere \$\$burutic bilobat ezta galduren. [Apost: XXVII: 33]

BURUTIC Eta confessatzen dugunean ecen deus eztela eguiten Iaincoaren prouidentia gabe: guc ditugu humilitaterequin adoratzen haren secretu guri estaliac, gure capacitateac emaiten duen baino aitzinago inquiritzen ezgarelatic, baina applicatzen dugularic gure probetchutara Scriptura sainduan eracusten çaicun gucia, repositan eta segurançatan garençat ceren gauça guciac bere suiectionean dituen Iaincoac, aitatassunezco artha batez veillatzen baitu gure gainean halaco maneraz non ezpaita bilobat-ere gure \$\$burutic eroriren haren vorondatea gabe: eta bizquitartean deabruac eta gure etsay guciac hala dadutza bridatuac, non calteric batre ecin baitaidigute haren congitarequin baicen. [Doctrina pura: 8]

BURUZ 57 Eta nola ceuron \$\$buruz-ere eztuçue iugeatzen bide dena? [Luk: XII: 57]

BURUZ 30 Ia hostatzen diradela dacussaçuenean, ceuron \$\$buruz eçagutzen duçue ecen ia hurbil dela vdá. [Luk: XXI: 29]

BURUZ 19 Ihardets ceçan bada Iesusec, eta erran ciecén, Eguiaz eguiaz erraiten drauçuet, ecin daidi Semeac bere \$\$buruz deus, erran nahi da, baldin ikussi ezpadu Aitá obratzen: ecen cer-ere harc eguiten baitu, hura Semeac-ere halaber eguiten du. [Ioan: V: 19]

BURUZ 30 Ecin daidit nic neure \$\$buruz deus: dançudan beçala iugeatzen dut: eta ene iugemendua iusto da: ecen ezabila neure vorondatearen ondoan: baina ni igorri nauen, Aitaren vorondatearen ondoan. [Ioan: V: 30]

BURUZ 17 Baldin nehorc nahi badu haren vorondatea eguin, eçaguteren du doctrináz, eya Iaincoagatic denez, ala ni neure \$\$buruz minço naicenez. [Ioan: VII: 17]

BURUZ 18 Bere \$\$buruz minço dena, bere gloriaren bilha dabila: baina bera igorri duenaren gloriaren bilha dabilana, da eguiati, eta iniustitiaric hura baithan ezta. [Ioan: VII: 18]

BURUZ 28 Oihuz cegoen bada Iesus templean, iracasten çuela eta erraiten, Eta ni nauçue eçagutzen, eta nondic naicén badaquie, eta neure \$\$buruz eznaiz ethorri, baina da eguiati ni igorri nauena, cein ezpaituçue çuec eçagutzen. [Ioan: VII: 28]

BURUZ 28 Erran ciecén bada Iesusec, Altchatu duqueçuenean guiçonaren Semea, orduan eçaguturen duçue ecen ni naicela hura, eta neure \$\$buruz eztudala deus eguiten, baina Aitac iracatsi nauen, beçala gauça hauc erraiten ditudala. [Ioan: VIII: 28]

BURUZ 42 Erran ciecén bada Iesusec, Baldin Iaincoa çuen aita baliz, maite nindueque ni: ecen ni Iaincoaganic partitu eta ethorri naiz: eta eznaiz neure \$\$buruz ethorri, baina harc igorri nau. [Ioan: VIII: 42]

BURUZ 18 Nehorc eztraut hura edequiten, baina nic dut eçarten hura neure \$\$buruz: bothere dut haren eçarteco, eta bothere dut berriz haren hartzeco. Manamendu haur recebitu dut neure Aitaganic. [Ioan: X: 18]

BURUZ 13 Baina dathorreanean hura, Spiritu eguiazcoa diot, harc guidaturen çaituzte eguia gucitara: ecen ezta minçaturen bere \$\$buruz, baina cer-ere ençun baituque erranen du: eta ethorteco diraden gauçac declaraturen drauzquiçue. [Ioan: XVI: 13]

BURUZ 10 Eta iraganic lehen goardia eta bigarrena, ethor citecen burdinazco borthara, ciuitatera daramanera, cein bere \$\$buruz irequi baitzequién, eta ilkiric iragan ceçaten karricabat, eta bertan parti cedin Ainguerüa harenganic. [Apost: XII: 10]

BURUZ 5 Ez sufficient garelacotz gure \$\$buruz cerbaiten pensatzeco, gueurorganic beçala: baina gure sufficientiá Iaincoaganic da. [2 Corin: III: 5]

BURUZ 17 Ceren ene exhortationea gogaraco içan baitzayó, eta affectionatuago içanez bere \$\$buruz çuetara ethorri içan baita. [2 Corin: VIII: 17]

BURUZ 4 Anaye falsu Eliçánbere \$\$buruz nahastecatuén causaz, cein sar baitzitecen gure libertate Iesus Christean dugunaren espia içatera, gu suiectionetara erekar guençatençát. [Galat: II: 4]

BURUZ Burua. Iaincoa, Christen \$\$Buruz: Christ, guiçonaren: guiçona, emaztearen, 1. cor. 11. 3: Eliçaren Burua, Christ eph. 5. 23 [Testam. aurkibidea: 307]

BURUZ Eta ceren gure \$\$buruz hambat baicara indar chipitaco eta erorcór, non den gutiena-ere ecin baiquinauteque fermu: eta berçalde halaco etsayéz ardua inguratuac eta iauquiac baicara nola baita, deabrua, mundua, bekatua, eta gure haragui propria non guri guerla eguitetic behin-ere ezpaitirade baratzen: fortifica gaitzac bada othoi, eure Spiritu sainduaz, eta hala harma eure gratiéz, non constantqui tentatione guciéy bihur eta garait ahal gaquidizten, eta batailla spiritual hunetan perseuera ahal deçagun, victoria bethea vkanic, finean Iesus Christ hire Seme gure capitain eta goarda denarequin hire resumán triumpha deçaquegun arteranocotz. [Confessionea: 14]

BURUZ Hunegatic, Iauna, gure içate gucia consideratzen dugunean confus gaituc gure bihotzetan, eta gure \$\$buruz gogo-galtzeaz eta desesperatzeaz berce gauçaric ecin guineaidiquec, ia herioaren abysmoetan baguina beçala. [Confessionea: 25]

BURUZ M. Eta fede haur \$\$buruz ahal duquegu, ala Iaincoaganic recebitzen dugu? [CatechisMEA: 246]

BURUZ H. Bay: eta ez solament gure desir harén vorondatearen contra diradenac gutan deseguin ditzan, baina are adimendu eta bihotz berriric gutan forma deçan: halaco maneraz non gure \$\$buruz deus ezugun nahi, baina gure nahi eta vorondate guciac bere Spirituaz bere vorondate sainduaren araura conforme eguin eta goberna ditzan. [CatechisMEA: 593]

BURUZ 31 Guc dugu sinhesten ecen nehor bere \$\$buruz ez bere autoritate propriz Eliça carguric vkaitera eztela auançatzeco: baina haur behar dela eguin electionez, Iaincoac permittitzen duen eta eguin ahal dadin lekurano. [Doctrina pura: 31]

BURUZ M. Eta gure \$\$buruz gauça horiac compli ahal ditzaquegu? [ABC: orationeac: 129]

BURUZ Guiçonac creatu iñancenean çuen liberal arbitrea cen, Iaincoac haren arimán hala hura eçarri vkan baitzuen, non bere \$\$buruz eta raçoinez, onaren eta gaitzaren eçagutzeco, bayeta bere vorondate propriz bataren edo bercearen hautatzeco edo arbuyatzeco bothere baitzuen: baina bekatua iñan da causa, guiçona bothere hunez gabetu iñan baita, eta principalqui Iaincoaren Resumaco gaucéz den becembatean. [ABC: orationeac: 179]

BURUZ Iaincoaren cerbitzu falsua ezta solament, harc bere hitzaz expressuqui defendatzen duena, baina adimendu humanoac bere \$\$buruz eta superstitosqui, Iaincoaren hitza gabe ordenatzen duen cerbitzu gucia falsu da, cer-ere intentione on eta cer-ere colore nehorc allega ahal baiteça. [ABC: orationeac: 190]

BURUÁN 6 Eta diotsó, Baldin Iaincoaren Semea bahaiz, egotzac eure \$\$buruä beherera: ecen scribatua duc, Ecen cargu emanen drauëla hiçaz bere Aingueruëy, eta bere escuetan eramanen autela, eure oinaz harrian behaztopa ezadinçat. [Mateo: IV: 6]

BURUÁN 19 Ala eztaquiçue ecen çuen gorputza temple dela çuetan den Spiritu sainduaren, cein baituçue Iaincoaganic, eta etzaretela ceuron \$\$buruën? [1. Corin: VI: 19]

BURUëQUIN 12 Ecen ezgara venturatzen gure buruén bardin eçartera edo comparatzera bere buruäc laudatzen dituzten batzuequin: baina ez tute aditzen hec bere buruäc bere \$\$buruëquin neurtzen dituztela, eta bere buruäc bere buruëquin comparatzen dituztela. [2 Corin: X: 12]

BURUëQUIN 12 Ecen ezgara venturatzen gure buruén bardin eçartera edo comparatzera bere buruäc laudatzen dituzten batzuequin: baina ez tute aditzen hec bere buruäc bere buruëquin neurtzen dituztela, eta bere buruäc bere \$\$buruëquin comparatzen dituztela. [2 Corin: X: 12]

BURUëTAN 8 Gogoauçue çuen \$\$buruëtara, gal eztitzaguncát eguin ditugun gauçác, baina sari bethea recebi deçagunçat. [2. Ioan ep.: 8]

BURUëTARATCO H. Ceren baitacussagu gure adimendua, fedez reuelatzen çaicun Iaincoaren sapientia spirituala comprehendí ahal deçaqueen baino flaccuago dela: eta gure bihotzac diffidentiatara, edo gure \$\$buruëtaratco edo creaturetaratco confidança gaichtotara emanac diradela. Baina Spiritu sainduac illuminatzen gaitu, neholetan-ere bercela ecin adi guenetzaqueen gaucén aditzera: eta fortificatzen gaitu segurançatara, saluamendutaco promessac gure bihotzetan imprimítuz eta ciguilatuz. [Catechismeac: 249]

BURUëY 9 Baina beguira eieçue çuec ceuron \$\$buruëy: ecen liuraturen çaituzte consistorioetara eta synagoguetara: açotaturen çarete, eta gobernadorén eta reguén aitzinera eramanen çarete ene causaz, hæy testimoniagetan. [Mark: XIII: 9]

BURUëY 34 Gogoa eyeçue bada çuen \$\$buruëy, çuen bihotzac sortha ez titecen gormandiçaz, eta hordiqueriaz, eta vicitze hunetaco ansiéz: eta subitoqui gainera ethor eztaquiçuen egun hura. [Luk:XXI: 33]